



Neguan olagizonek hilaren lehen igandean jartzen dute martxan Mirandaola burdinola. Irudian, burdina egiten ari dira. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Olagizon berriak **burdina egiteko**

Legazpiko Mirandaola burdinolan sei olagizonek lan egiten dute egun; gazteek olagizon erretiratuen lanari eutsi diote, eta oraingoz, gustura daude beren eginbeharrekin.

AMAIA ELIZONDO
Legazpi

Burdinak lotura handia izan du betidanik Legazpirekin (Gipuzkoa). Burdin enpresa ugari aurki daitezke Mirandaola museoko bidean. Legazpiar askok han jarduten dute egun osoan, eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko. Egun, burdina nola egiten den ikusteko aukera Mirandaola burdinolan eskaintzen dute. Apiriletik urrira bitartean, igandero, olagizonek burdinola martxan jartzen dute, eta bisitariek gertutik ikus dezakete. Beste hila beteetan, aldiz, hileko lehen igandean ikus daiteke. Iaz, hiru olagizon erretiratu ziren: Rufino Aranburu, Esteban Markotegi eta Fernando Murgiondo.

Urte asko egin dituzte hirurek



Azaroan egin zen erretiratu ziren olagizonen ekitaldia. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Juan Marin olagizona, Mirandaolako burdinolan. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

burdinolan. Lehenik ere ofizioa ikasita zeukaten; izan ere, burdin fabriketan lan egiten zuten. Orain, erretiratuta daude, baina, dagoneko, haien ordekoak hasi dira lanean. Hasieran hainbat zailtasun izan baziren ere, azkenean ordekoak lortu zituzte burdinolarako. Juan Marin ere nahiko berria da olagizonen artean. Hiru olagizonak erretiratu baino lehen hasi zen burdinolara joaten, 2006ko azaroan, hain zuzen. Marinen aburuz, esperientzia oso positiboa da.

Hasieran zalantzak izan zituen eskaintza onartzeko. «Betidanik burdinarekin lan egin dut, eta igandeetan berriro ere burdina egiten ibiltzea gehiegi izango zela pentsatu nuen. Baina, burdinolan hasi nintzenetik, oso gustura etortzen naiz. Bisitariak galderak egiten dizkizute, eta zuk dakizun guztia azaltzen diezu». Bisitarien artean, Euskal Herriko jendea ohikoa izaten da, baina denetarik ikusi izan dute. «Normalean euskal herritarak izaten dira, baina Espainiako toki askotatik ere etortzen dira, baita Europako beste lurraldeetatik ere».

GAZTEIE IRAKASTEN. Iaz, azaroan, hiru olagizonak erretiratu ostean, gazteek erreleboa hartu behar zuten. Hala, Marinek eta besteek irakasle

lanak egin dituzte gazteekin. «Burdinolan sartzen diren guztiak burdinarekin lan egiten dute lehenik. Sartu berriek ere hala egiten dute, baina beti erakutsi behar zaie burdinola martxan jartzen. Nik, behintzat, oso gustura erakusten diet burdinolaren martxa».

Olagizonek burdinola martxan jartzen duten bakoitzean janzten dute beren uniformeak, eta hala, burdina eskuz nola egiten den erakusten dute. «Haurrak adi-adi egoten dira begira, baita helduak ere. Baina txikiak suak ateratzen duen indarrari begira egoten dira». Izan ere, burdinolek antzinako metodoak erabiliz ekoizten zuten burdina, eta horretarako, labe baxu eta ireki bat erabiltzen zuten, gau eta egun etengabe lanean aritzen zena. XVI. mendeko burdinola baten berreraikuntza honen bidez, iraganera bidaia egiteko aukera eskaintzen dute Mirandaolan.

Astegunetan burdinola itxita egoten da, eta neguan hotz ikaragarria egiten du bertan, hilean behin irekitzen baitute. Hori dela eta, olagizonek hileko lehen igandea baino lehen burdinola martxan jartzen saiatzen dira. «Igandeetan 11:30 aldera etortzen dira bisitariak, eta ordurako, guztia martxan izaten dugu; bestela, denbora luzean zain egon beharko lukete». Marinek, behintzat, igandetan joaten jarraitzeko asmoa du. «Gaur-gaurkoz pozik etortzen naiz, eta aurrerantz, etortzen jarraitu nahi dut».

MUSEOAREN AUKERAK. Mirandaola Euskal Burdinaren Museoak burdinaren historiari erreposoa egiten dio. Lenbur fundazioak lantegi zahar bat berreskuratu zuen, bertan burdinaren industrializazioaren aurreko erakusketak biltzeko. Museoan metal horren hamaika sekretu ezagutu ahal izango du bisitariak, modu atsegin eta dibertigarrian. Horrez gain, ikus-entzuzko sistema modernoaren bidez, burdinolen garai oparotsuenean Burdin Haranean lan egiten zuten pertsonak nola bizi ziren ikusi ahal izango da. Museoa eguneroko bisita daiteke, astearteetan izan ezik, itxita egoten baita.

Bestalde, Mirandaola parkeak beste aukera asko eskaintzen dizkio bisitariari. Hala nola, Mirandaola parketik abiatuta, Igaralde Goena baserrira ailegatuko da bisitaria. Bertan, Ogiaren Txokoa aurkituko du. Museo horretan ogia artisau erara nola egiten den ikusteko parada izango da. Hori bakarrik ez, ogiaren usainaz eta zaporeaz gozatzeko du bisitariak.

Beste gune bat ere izango du bisitariak: Artzaintzaren Ekomuseoa, Erreizabal baserrian dagoena. Baserri horretan Idiazabal gazta egiten da, eta gazta egiteko prozesua ikus daiteke hormetan dauden panel batzuetan. Horrez gain, artzaintzarekin lotuta dauden hainbat artisau objektu ere ikus daitezke. Mirandaola parkeak egun eder-rra pasatzeko aukera ematen du.